

KONTROL MOZIOA

GROSEKO GUNE ESTALIAK DIRELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztu du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko urtarrilaren 15ean Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Azken urteetan ugaritu egin dira gune estaliekin lotuta herritarrek egindako eskaerak. Izan ere, horrelako doako espazioen eskaria auzo elkartean zein guraso elkartean etengabeko eskaera bihurtzen ari da.

2017ko abenduko batzordeetan PPK aurkeztutako ekimen baten harira, Hirigintzako zinegotzi-delegatuak adierazi zuen Udal Gobernuak Zuberoa Plaza ez estaltzea erabakia zuela. Delegatuaren hitzetan, Udal Gobernuak ez du eskaerarik ikusten Groseko bizilagunen aldetik, nahiz eta Zuberoa Plaza estaltzeko eskaera aurreko legegintzaldian egindako prozesu parte-hartzaile baten ondorioa den.

Gainera, zinegotzi-delegatuak esan zuen Egiako Plaza Haundi/Martin Santos plaza estaltzeko aurrekontua eskasa zenez, Zuberoa Plazara bideratuta zegoena erabiliko dutela Egiako gune estalia egiteko.

Udal Gobernuaren erabakiak, ordea, ez datoz bat prentsan egin dituzten hainbat adierazpenekin. Esate baterako, 2016ko abenduaren 29an honako adierazpen hauek azaldu ziren prentsa idatzian: *"Otra de las actuaciones previstas en este sentido es la de cubrir la plaza Zuberoa de Gros, ubicada junto al paseo de Colón. La propuesta ya se planteó al final de la legislatura pasada y vuelve a estar sobre la mesa, esta vez, con una partida de 968.000 euros que, además de la colocación de una estructura protectora, servirían para reurbanizar toda la plaza y la zona de juegos infantiles. En la actualidad el parque está a una cota inferior que el resto de la plaza y la intervención supondría nivelar toda la zona¹."*

2017ko maiatzaren 23an, Enrique Ramos zinegotziak berak honako adierazpen hauek egin zituen berriro ere (prentsan ere etorkizuneko gune estaliaren irudiak argitaratu ziren): *"Un espacio, hoy en obras, del barrio de Gros va a ser renovado para mejorar su accesibilidad y sus características como zona de estancia. Se trata de la plaza Zuberoa, junto al paseo Colón y en el extremo final de la calle Usandizaga, que incorporará una cubierta traslúcida de 280 m2 diseñada por el arquitecto Juan Beldarrain. La Junta de Gobierno del Ayuntamiento aprobará hoy de forma inicial el plan especial que reordenará este ámbito y cuyas obras podrían comenzar a finales de año o principios del 2018²."*

¹ <http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2016/12/29/vecinos/el-consistorio-preve-una-cubierta-en-la-plaza-zuberoa-y-cambiara-la-de-martin-santos>

² <http://www.diariovasco.com/san-sebastian/201705/23/plaza-zuberoa-escalones-rodeara-20170523001013-v.html>

Urtarrileko batzordean delegatua interpelatu dugunean adierazi digu Zuberoa plazaren kasuan ez daukatela argi zer egin eta oraindik lehentasunak ezarri behar dituztela. Oso harrigarria iruditzen zaigu abenduko batzordeetan Zuberoa plaza estaltzeko proiektuan atzera egin zuelako Udal Gobernuaren delegatuak, komunikabideetan hura iragarri ondoren. Urtarrileko batzordeetan, ordea, delegatuak adierazi du Udal Gobernuak ez dakiela zer egingo duen Groseko gune estaliarekin. Honek agerian uzten du Udal Gobernuak inongo irizpiderik ez duela eta, oso harrigarria da hau gertatzea, gune estaliak aztertzeko batzorde tekniko bat duela bi urtetik lanean ari omen den bitartean.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du.

KONTROL MOZIOA:

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Zuberoa Plazako gune estalia jartzeko prozedura eta pausoak zehaztu ditzala kronograma batean.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari gune estalien batzorde teknikoak Zuberoa Plazaren inguruan orain arte egin duen lanaren berri eman dezala.

Donostian, 2018ko urtarrilaren 18an



Olaia Duarte López

EH Bildu udal taldeko zinegotzia